



FRANCISCO JAVIER ARANIGURÍA RODRIGO, Tolosako Udaleko idazkari akzidentala.

NEUK ZIURTATUA:

Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, bi mila eta hogeita bosteko urtarrilaren hogeita batean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabakia hartu du:

**2. BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA “24.1 IURRAMENDI PASEALEKUA”
AZPIESPARRUKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN LEHEN ALDAKETARI.**

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udaleko Udalbatzak 2021eko maiatzaren 27ko osoko bilkuran, behin betiko onartu zuen «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Berezia (2021eko irailaren 10eko GAO, 174. zk.)

BIGARRENA.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko urriaren 13an hartutako erabakiaren bidez, behin betiko onartu zuen «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruko Hirigintzako Jarduketa Programaren Testu Bategina (2021eko urriaren 29ko GAO, 208. zk.).

HIRUGARRENA.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko apirilaren 5ean hartutako erabakiaren bidez, behin betiko onartu zuen Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruaren urbanizazio-proiektua (2022ko apirilaren 29ko GAO, 80. zk.).

LAUGARRENA.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko ekainaren 28an hartutako erabakiaren bidez, behin betiko onartu zen Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruaren birpartzelazio-proiektua (2022ko uztailaren 5eko GAO, 127. zk). Hutsen zuzenketa eman zen azpie-remu horretako jabe guztiek osatutako Hitzarmen Batzordeak sustatua (2022ko uztailaren 11ko GAO, 131. zk.).

BOSGARRENA.- 2024ko abuztuaren 8an Tolosako Udaleko jarduneko alkate-udalburuak, 2024/1821 Dekretua egin zuen honakoa ebatziz: hasierako onespena ematea «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa-programaren lehenengo aldaketa jasotzen duen dokumentuari.

ESKIBERRERAK-9BERRADON-ae22-d85782f0acf3



SEIGARRENA.- 2024ko uztailaren 9an «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruko ituntze-batzarrak, Asier Lanceta Vicentek ordezkaturak, (2024-9175, 9177, 9180, 9182, 9183, 9184 sarrera zenbakiekin), «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruaren Urbanizazio Proiektuaren aldaketa-dokumentua izapidetzeko eskaera eta dokumentu atxikia aurkeztu zuen.

ZAZPIGARRENA.- 2024ko abuztuaren 23an eta irailaren 6an zein 12an, hirigintza buruak, hirigintzako ingeniariak eta tekniko juridikoak txosten tekniko bana egin zuten.

ZORTZIGARRENA.- Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko irailaren 17an, besteak beste, erabaki zuen hasierako onespina ematea 24 lurre esparruko «24.1 lurramendi Pasealekua» azpiesparruko Urbanizazio Proiektuaren lehen aldaketari (2024eko uztailaren 9an aurkeztutako dokumentuari), honako baldintzarekin:

«BEHIN BETIKO ONESPENA eman aurretik, zuzendutako dokumentua aurkeztuko da, aldaketa hauek barneratuko dituena:

1. Urbanizazio Proiektua zuzendu egin beharko da UJP-ren aldaketan jasotako faseetara egokitzeko.
2. GI-2130 errepidearen babes-eremuan egoteagatik GFAko Bide Azpiegituretako baimena beharko da.
3. Eskubanden diseinua 68/2000 dekretuaren 2. eranskineko 3.7 ataleko 4. eta 3.10 ataleko 2. puntuak ezarritakoa betetzeko egokitu beharko da.
4. Instalakuntzei buruzko 6. eranskineko euri-urei buruzko 2. atalean aldaketa berriei dagozkien eguneraketak egin beharko dira.
5. Eskailera berrien ondoan eraikiko diren graden definizio zehatzago bat aurkeztu beharko da.
6. Igogailuaren bi sarrera-irteeratan igogailuaren instalakuntzak eta erabiltzaileak euri-uretatik babesteko dituen estalpe bana gehitu beharko da.
7. Transformazio zentroaren gaineko forjatuaren definizio zehatzagoa gehitu beharko da.
8. 04.5 Sekzio *tipoak* planoko 5. sekzioaren irudi zuzena gehitu beharko da.
9. 6. eranskinean Iberdrolaren baldintza tekniko-ekonomikoak atxikitu beharko dira».

BEDERATZIGARRENA.- 2024ko irailaren 20an, Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakia jakinarazi zen «24.1 lurramendi Pasealekua» azpiesparruko hitzarmen batzordeari.

HAMARGARRENA.- Hartutako erabakia 2024ko irailaren 26an GAOn, 80. zk., argitaratu zen eta, 2024ko irailaren 27, 30 eta urriaren 1ean, Berria, Diario Vasco eta Tolosaldeko Atarian iragarkiak argitaratu ziren. Era berean, udaleko iragarki-oholean zein egoitza elektronikoak eskura egon zen 2024ko irailaren 26tik urriaren 29 arte.

HAMAIKAGARRENA.- 2024ko urriaren 14an, Tolosako Udalean GFAko Bide Azpiegitararako eta Lurralde Estrategiko Departamenduaren aldeko txostena jaso zen (erregistro zk. 2024-13133).

ESKIBERRERAKO-9BERRADON-ae22-d85782f0acf3



HAMABIGARRENA.- 2024ko azaroaren 18an hirigintza buruak jendurrekoari buruzko txostena egin zuen eta jaso zuen jendurrekoan ez zela alegaziorik aurkeztu. 2024ko azaroaren 25ean, udal idazkariak txosten horren gaineko ziurtagiria egin zuen.

HAMAIUGARRENA.- 2024ko azaroaren 28 eta 26an (sarrera zk. 2024-14978/15033/15035/15037/15038), TolosaSukia SL enpresak, Alfredo Pozueta Lopez de Zubiriak ordezkaturik, urbanizatzeko proiektu eraldatua aurkeztu zuen behin betiko onarpenerako.

HAMALAUGARRENA.- 2025eko urtarrilaren 14an, obra, zerbitzu eta mantentze-lanen arduradunak txosten teknikoa (JM25002) egin zuen.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak baduela gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion.

BIGARRENA.- 2025eko urtarrilaren 14an, obra, zerbitzu eta mantentze-lanen ardura-dunak txosten teknikoan (JM25002) jasotakoa:

«KONTUAN IZANIK:

2024ko azaroaren 28 zein 29an udalean aurkeztutako Proiektu Eraldatua, zerrendako puntu guztiak banan-banan aztertuta, esan dezakegu Tolosako Udalak eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu dutela.

ONDORIOAK

Ezarritako baldintzak betetzat eman daitezke eta Behin Betiko onespena eman daiteke».

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Behin betiko onespena ematea 24 lurre esparruko «24.1 lurrarengi Pase-alekua» azpiesparruko Urbanizazio Proiektuaren lehen aldaketari (2024ko azaroaren 29an aurkeztutako dokumentuei).

ESK18588642-9B8ERAD08-ae22-d85782f0acf3



TOLOSAKO
UDALA

2025IGBA0002

BIGARRENA.- Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Era berean, interesdunen eskura jartzea udaleko egoitza elektronikoan.

HIRUGARRENA.- Ebazpena interesdunei zein eragindako lursailen jabeen zuzenean jakinaraztea.

Hala jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Antolakuntza Lan Esparruko zinegotzi delegatuaren onespenerekin, Tolosan, sinadura agertzen den datan.

O.e.

**ANTOLAKUNTZA LAN ESPARRUKO
ZINEGOTZI DELEGATUA**

IDAZKARI AKZIDENTALA

ZIRIBORROA - BORRADOR

Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxe: 943 69 75 10 - e-mail: udate@tolosa.eus
www.tolosa.eus

4



EKS | CSV: **ESKU185e96d2-92ef-40df-ae22-d85782f0acf3**

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025IGBA0002-2-24.1 lurramendi pasealekua ziurtg./2-24.1 lurramendi

Digitalki sinatua:



Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Udal Idazkari Akzidentala

Data: 2025/01/21 15:56:04



EKS | CSV: ZIRRIBORROA - BORRADOR

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>